

Tranbiaz Feminista

EMILIA PARDO BAZÁN



itzulpena:
Aitor Errazkin Vicente



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

EMILIA PARDO BAZÁN

Tranbiaz Feminista

Itzulpena:

Aitor Errazkin Vicente

Azaleko irudia:

“Emakumea mantoian bildua”

(Vicente Palmaroli y González, 1875-1880 artean)

Tranbiaz

Neguko azken hotzaldiek primaderari eman diote bide, eta halako lurrin bizi-emailea dabil giroan, zeru urdin guztiz garbian gora. Mezatik edo kalerik kaleko joan-etorri goiztiarretik bueltan, trumilka ari da jendea Salamanca auzoko tranbian sartzen, Puerta del Solen. Goiz parteko soineko xumez jantzirik doaz andreak, begi-nini beltzen distira buruko zapien parpailen itzalpean bildurik, errosarioa eskumuturrean kiribildurik, eta eskularruz jantziriko eskuan, guardasolaren heldulekua ezkututzen duela, lila sorta bat edo kukurutxo bete gozoki, zintzilik, hatz txikiari xingolaz loturik. Haurrekin batean doaz batzuk: bai haur dotoreak!, ederrak!, ongi zainduak! Musuka jateko modukoak; bizkarretik zintzilik darizkien adats-hori kulunkari eta jorietan hatzak murgildu eta jostatzen hasteko gogo gaindiezina egiten zaio bati.

Lehen lehenik, eta nire parean ia, hilabete gutxiko haurtxo bat nabarmentzen da. Aurpegitxo lodikotea eta esku gorritak salbu, zurtasuna da harengan nagusi, parpailak, tira brodatu zulodunak, eta zinta-begiztak; bai eta artile zuritan bilduriko bola bi ere, ointxoak, bola urduri eta dantzari bi. Altxa egiten da haien gainean, gozamen jauziak eginez, eta berrogeitaka urteko gizonezko batek —aita, ziurrenik— txeraren bat egiten edo mistoren bat pizten diolarik, barre egiten du titi-jale halakoak, bere agure aho lerdetsu eta horzgabea zabal-zabal, begi aratzei zeruko argia dariela. Haraxeago, bederatzi urte inguruko neskato bat dago patxadatsu eserita, destainari eta axolagabe jarreraz, zangoak gurutzaturik, zeta beltzeko media tenkatuetan bilduriko berna hezur fina agerian, dilindan oina, txarolezko zapata ingeles eta guzti. Bihar emakume eder izango denak badu gaurgero limurtzaitetik pixka bat; jendea begira duela eta guztiek ederresten dutela badaki, eta utzi egiten die berak guztiei begiratu eta ederrets dezaten, eta egoerak sortzen dion atsegina intimitatean gordetzen du, “badakit gustuko nauzuela, badakit begiesten nauzuela” adierazten duen aurpegi-keinua eginez. Adatsa du doi-doi uhindua, garbia, berdina, oparoa, berealdikoa, eta inguratu eta bildu egiten du neska urrezko aureola moduko horrek, luma gris handi batez lanbroturiko feltrozko kapelu zabalaren azpian. Bularraren kontra estu-estu, zeta-paperezko fardel bat darama, anaia gazteenarentzako jostailu finen bat, amarentzako opariren bat, edo txibista edo mototsen bat agian, ageri duen harro puntu goiztiar horren jabe egitera bultzatuko zuenaren parekoa. Lore-begi itxi horrez harago, bada gaurgero erdi ireki den beste bat, ahizpa beharbada, hogei bat

urteko neskato ederra, madrildar beltzaran itxura betekoa, xume jantzirik, bere soslai delikatu eta serioa goratzen duen kapotatxo ia sumaezin batez apaindurik. Harengandik ez urrun, arrozetan hautsezatu berri, andre handi harro bat begirada jaisten eta bere baitara biltzen arida, ametsetan edo oroitzapenetan galtzeko.

Halako eskifaiarekin, harro egiten du tranbia plebeioak eguzkipean diz-diz, satinez forraturiko eta odol garbiko zaldi ingelesek tiratako gurdia balitz bezala. Ezin gardenagoak dirudite haren beirek; itsugarriak dira haren metalezko botoiak; bulartsu eta lerdan doaz mandoak trostan; ahots biziz akuilatzen ditu gidariak, eta kobratzaileak arretatsu eta lagunkoi egiten du txartelen galde, eta keinu adeitsuz itzultzen du bueltan paper zatitxo arrosa ala zuria. Harako han dauden Pazifiko eta Hipodromoko lineatako langile kargamentuei darien aker-usainaren aldean, loreen lurrina dabil tranbiako giroan, gorputz garbien lurrinak, eta arropa txuriaren irisaren brisak. Ordaintzerakoan txanponen bat lurrera erortzen bada, haren bila hasi eta ointxo txikiak ikusten dira, Luis XV takoiak, azpiko gonon parpailak eta orkatila meheak. Kotxea Alcalá kalean gora doala, are gehiago hedatzen da eguzkia, eta oraindik eta bozkario handiagoa sorrarazten dute igandeetako zalapartak, espaloietan biltzen den jendetzak, kotxeen joan-etorri azkarrak, egunaren argitasunak eta airearen epeltasunak. A! Zeinen alaia igande madrildarra, zeinen aristokratikoa tranbia, auzoko etxe guztietatik plater-kliska aditzen delarik, hamaiketakoaren iragarki, jangeletako kristalezko frutontziek bereizitako fruta edo etxeetako ugazabandreek propio aukeraturiko gozo goxoak baino biltzen ez dituzten garaian, izan Martinhotarrenean, izan Prastarrenean!

Orban bakarra nabaritu nuen tranbia haren osaeran. Beltz-beltza eta itsusi mortala zen zinez, gainerakoekiko kontrasteak itxura hori areagotzea ere bazitekeen arren. Bertako emakume bat zegoen iskin batean uzurturik, eta besoen artean zeraman haurrari balakuak egiten zizkion. Emakumearen adina zehazten ez zegoen erraza; hogeita hamar urte pasa izan zitzakeen, baina baita berrogeita hamarrek ongi beteta eduki ere. Arantza baino argalagoa, manto arrexka maiztuak gorputz-adar meharrak nabarmenarazten zizkion: pertxa batetik zintzilik zihoala zirudien. Izan ere, emakume madrildarraren mantoiak, adierazkorra eta salatario izaki, aski ongi daki jantzita daraman haren gorputzaren berri ematen: ez dago txula sutsu baten liraintasuna hobeki goratzen duen janzkirik, ez eta haren aldaka mugimendu probokatzailea gehiago nabarmenduko duenik ere; baina, era berean, ez dago hobeki azaleratzen dituenik ere miseria zikoitza, txakur bizi estu baten etsipen nekatua, gosearen uzkurra, minaren axolagabekeria

gorena, eta zorigaiztoak zimelduriko emakumearen gogamen falta guztizkoa, gustagarri izateko esperantzari ez ezik, sexuaren prestigioari ere erabat uko egina dion harena.

Errauts koloreko mantoidun emakume hark, arras pobrea batere zalantzarik gabe, premia gorria baino are nahigabe krudelagoak pairatzen zituelako susmoa izan nuen. Espainiar herriak etsipen alaiz onartzen du bere horretan miseria, aldarrikapen sozialistak arrotz izan baitzaizkio oraintsu arte. Txirotasuna da txiroaren patua, eta alferrik dira protestak. Miseria baino are kontu ikaragarriagoa eta ohiz kanpokoagoa ikusi nuen nik, ordea, aurpegi, zurbil ez baizik, hilkara hartan idatzita; ertzak lurperaturik zituen aho hartan, non sekula jostatu gabea baitzirudien irriak, betazal haragitsu eta odoltsudun begi erre eta negar-malko hozgarririk batere gabeko haietan: etsipena.

Haurra lo zegoen. Ederragoa zuen adatsa, itxurosoagoa, emakumeak baino. Bere artilezko galtzetek ez zuten urraturik; zapatak trauskilak ziren, baina sendoak, eta egoera onean zeuden; jaka lodiak aise babestuko zuen hotzetik, zalantzarik gabe, eta garbi eta leuna zirudien aurpegiak, logurak hatsandituriko masailtxo bi haiek. Kapelu gorritzata batek kaskamotza estaltzen zion. Trankil zen lotan; arnasa ere ez zitzaion sumatzen. Emakumeak, tarteka, eta senak agindurik bezala, leunkiro estutzen zuen bereganantz mutikoa, esku hezurtsu, belztu eta dardartiaz.

Kobratzailea hurreratu zen, liburuxka eskutan, diru-zorroko txanponei eraginez. Inarrosi egin zen emakumea, amets batetik esnatu izan balitz bezala, eta sakelan arakatzen eta bilaketa saio luzeak egin ondotik, kobrezko txanpon bat atera zuen.

—Nora?

—Azkenera.

—Hamabost xentimo dira Puerta del Soletik, andrea —gaztigatu zuen kobratzaileak, erdi errietalari, erdi urrikaldu—, eta hamar baino ez dizkidazu hemen eman.

—Hamar!... —errepikatu zuen emakumeak astiro, burua beste nonbait balu bezala—. Hamar...

—Hamar, bai; txakur handi bat... Ez duzu ikusten?

—Baina ez dut besterik —erantzun zuen emakumeak, ezti eta ezaxola—.

—Ba, hamabost ordaindu behar dira —ohartarazi zuen kobratzaileak laztasun pixka batez, marmar gehiegi egin gabe, errukiak galarazten baitzion.

Kontuak kontu, tranbiako jendea gertatzen ari zenaz jabetzen hasi zen, eta hasia zen ordurako andre bat bere txanpon-zorroaren bila, zor ziztrin hura kitatzeko asmoz.

—Ez dut besterik —errepikatzen zuen emakumeak setati, ez haserre, ez samin.

Beste andre hark txakur txikia eskaini aurretik, jiratu egin zen kobratzailea, sorbaldak goiti, esanez bezala: “halakoak gertatzen dira, tarteka...”. Eta halako batean, inork batere espero ez zuela, zutitu egin zen emakumea, semea askatu gabe, begiei sua zeriela, eta zera adierazi zien, haserre, bertan ziren guztiei:

—Beste batekin alde egin dit senarrak!

Betondoa zimurtu zuen batek, irriari eutsi ezinik zen bestea; lehenbizikotik, gaixo hura erotu egin zela uste izan genuen, hain neurrigabe garrasika hasi eta halakoak botatzen hasteko; bera ohartu ere ez zen egin, ordea, entzulegoaren harriduraz.

—Beste batekin alde egin dit —errepikatu zuen isiltasunaren eta guztien jakinminaren artean—. Lapurtzar bat, pareta bat haina pintatu eta zuri-berritua! Harekin joan da. Irabazten duen guztia hari ematen dio, eta makilka hartu ninduen ni. Buruan jo zidan. Hautsita daukat. Joan egin dela, hori da txarrena. Ez dakit non den. Badira bi hilabete haren berririk ez dudala!

Hori esan eta bere txokoan abaildu zen, okotz azpian loturik zeraman kotoizko zapia oharkabe lotzen zuela. Barrendik urakan batek astinduko balu bezala dardaratzen zen, eta bere begi odoltsuetatik bi malko bero erori ziren, masail zargaldu haietan behera. Bere mihiak hitz nahasiak ahoskatzen segitu zuen ahapeka, ahoz gora adierazi gabe geratu zitzaizkionak nonbait, etxeko drama haren xehetasun krudelak. Titiko umea entretenitzeko poxpoloak pizten zituen berrogeitaka urteko gizona sumatu nuen orduan bere ondoan zihoan damaren belarrira xuxurlaka.

—Zorigabeko halakoa... Konprenitzen dut senarra, konprenitzen dudanez. Trapu zaharra dirudi. Txukuna du, bada, aurpegia!, eta hori da hori eper begia duena!

Dama hark berak kobratzaileari maukatik leunki tiro egin, eta zerbait eman zion. Kobratzailea emakume behartsuarengana hurbildu, eta eskutan ipini zion hobaria.

—Har ezazu... Andre hark pezeta bat eman dizu opari.

Berehala egin zituen kutsadurak bereak. Tranbiako tripulazio guztiaz jabetu zen eskuzabal izateko halako grina bat. Diru-zorroak, karterak eta zakutxoak atera ziren argitara. Bat-batekoa eta oparo samarra izan zen diru-bilketa.

Izan emakumearen hots etsiak han ziren guztien bihotzak beratu eta astindu zituelako, izan errazago delako azken duroa botatzen lehen pezeta emateko pausoa ematen baino, mundu guztiak egin nahi izan zuen ekarpena, baita neska-motz destainari adats horikoak ere, bere xaloan ulertu izango baitzuen, agian, bazela han kontsolatu beharreko atsekabe handi bat, eta keinu polita izan zuen, izan zuenez, oso serioa eta elegantea, zera esan baitzion arrebatxo zaharragoari: “María, ekatzu zerbait pobrearentzat”. Bitxiki, ordea, emakumeak ez zuen inolako pozik edo esker onik adierazi zerutik bezala gainera etorri zitzaion mana hura guztia zela eta. Zilarrez lagundurik ere goxatu ezin diren gaitz horietakoa zen berea, zalantzarik gabe. Gorde zuen, gorde, kobratzaileak eskutan jarri zion dirua, eta buru-keinu batez adierazi ere egin zuen, jabetzen zela, jasotako limosnaz; baina ez besterik. Ez zen mespretxua, ez zen hantustea, ez zen irabazitakoa aitortzeko ezgaitasun morala: min handiago batean zegoen emakumea murgildurik, espazioan barrena jarraitzen zuen ideia finko batean, ametsetan begirada, dardarizo epileptikotan gorputza.

Hala ere, haren jarrerak kolpetik baretu zuen zirrara errukitsua. Bereko hutsa izan ohi da gehien-gehienetan limosna emailea, eta hagaxka magikoz jo eta malkoak poz bihurtzea baino ez du nahi izaten. Durduzatu egiten du etsipen beteak, bere urguiluari erasateraino, eta zorigaiztoko jendeak bere buruari aitortzen dion ihesbide moduan baino ezin du guztizko desesperazio hori ulertu. Tranbiako jende haiek guztiak beren erruki-aldiaz lotsatu samarrak zirela esan liteke, pezeta eta bi pezetako halako txanpon-jasa baten ondotik (duro berri-berri dizdizari bat ere tartean, mutikoa medio), emakumeak ez zuelako zirkinik ere egiten, eta haiei ere kasu zipitzik egiten ez zielako. Argi da halako pentsamenduen berri ez dugula ahoz gora eman ohi, eta, beraz, inork ez zion ondokoari ezer esan; kolkorako gorde zuen nork berea, eta eroarena jo zuten guztiek, halako barreiamendu oparo batean ari zirelakoan, eta gertatu berri zenarekin zerikusirik ez zuten beste kontu batzuei buruz hasi ziren mintzatzen. “Ez zaitez, bada, gerturatu, lilak hondatuko dizkidazu eta”. “Bai egun ederra gaurkoa!”. “Ai, ordu bata dagoeneko; gozoa egongo da osaba Julio, hamaiketakorako presa izaten baitu hark beti...”.

Halako berriketaldiez estaltzen zuten lotsa, beren ekintza onak baino, emakumeari iradoki zioten akats edo hanka-sartze sentimentalak eragiten ziena.

Husten hasi zen tranbia, pixkanaka-pixkanaka. Goya kale-buruan jende asko askatu zuen daborduko. Azkar irteten ziren, karga arindu eta egoera deseroso bati amaiera ematen dionak bezalatsu, eta bere txokoan mugiezin eta dardaratsu zen emakumea begiradarekin saihestuz. “Jaungoikoak ordainduko ahal dizu” esan ere egin gabe uzten zien gaixoak joaten, ongile izan berri zituen haiei guztiei. Ohartuko ote zen kotxea hutsik geratzen ari zela? Abertitu behintzat egin behar izan nuen:

—Nora zoaz? Ibilbide amaierara heltzen ari gara. Kontuz deskuidatu eta zure etxea atzean utzi gabe.

Erantzun ere ez zidan egin; baina halako buru-keinu neketsu batez zera adierazi zidan argi eta garbi: “Zera! Nora ote noan... Jainkoak baino ez daki kotxe-tokitik abiatu eta zenbat ibiliko naizen.”

Haragi bizitan zen arima haren oinaze amaigabea pixka bat arintze aldera, hitzek txanponek baino mesede handiagoa egin ote zezaketen probatzera tentatu ninduen deabruak (halako kontu gupidakorretan nahasi zalea izaten baita hura).

—Izan adorea, emakumea —esan nion kementsu—. Zure senarra gizon eskasa bada, ez zaitez hargatik abaildu. Haur bat daramazu besotan...; harentzako behar duzu zuk lan eta bizi. Zure buruagatik egiten ahaleginduko ez zinatekeena egin behar zenuke izaki horrengatik. Bihar mutikoak ofizio bat ikasiko du, eta hark babestuko zaitu zu. Haien seme-alabak bizirik diren artean, abailtzeko eskubiderik ez dute amek.

Orduan atera zen emakumea bere txundiduratik; jiratu eta nigan iltzatu zituen bere begi narritatu eta lehorrak, betazal zintzilikari odoldu beldurgarri eta guzti. Haren begiratu tinkoak arima uzkurto zidan. Bien bitartean, aharrausi nagiz artean, besotxoak luzatu zituen haurrak, esnatu berri baitzen. Eta airean goititu eta aurkeztu egin zidan emakumeak umea. Eguzkiak bete-betean argitzen zizkion aurpegia eta begi-nini zabal-zabalak. Zabal baina zuri, zuri erabat, geldi. Itsua zen emakume abandonatu haren semea.

Feminista

Aguasacraseko bainuetxean ezagutu nituen senar-emazte haiek: senarra, izaera gogaikarri eta umore txarrekoa, bi urteren buruan hilobira eramango zuen pairamen sendagaitza herrestan; emaztea, polit xamarra, etsi-alai aurpegia, senarraren zaintzaile arduratsua zen, gaixoen apetei adi beti, eriek osasuna dutenenganako mendeku gisa baliatzen dituzten horietxei, alegia.

Bazuen gizon hark, oraindik, eta gaixorik egonagatik ere, edozein gai gizatiar nahiz jainkotiarri buruz sutsu, entzungor, garratz eta ezkor eztabaidan aritzeko nahikoa adore, eta teoria intrantsigente hetsiak garatzeko, aldiro. Pentsaera zuen inkisitorial eta jakobino artekoa, eta askok uste baino nahasketa ohikoagoa da hori, elkar ukitzera ez ezik, bat egitera ere iritsi izan baitira hemen ertzeko jarrerak, modu ezin bitxiagotan nahaspilatzeraino. Malgutasunaren eta sentikortasunaren eskutik etorri ohi da tolerantzia adeitsua, baina bakan izan dira horiek gurean, eta horren froga gisa historiak utziriko zantzuak aski izango ez balira, horra kafe-etxe, lagunarte, bilkura, plazatxo eta tabernetako gure eztabaida-molde beti zakar eta karrankariak.

Aipagai dudan gizon eri hura ez zen inor bizirik utzi zale. Bakan batzuk baizik ez ziren haren epai ezin zorrotzagoen ekinetik libratzen. Oso garai txarrak ari omen ginen bizitzen, eta zinez izugarria zen usadioetan lasakeria. Etxeetan anarkia zen nagusi, izan ere, aginpiderik ezean, emakumeak ez daki gaugeru emazte izaten, eta ezta gizonak senar eta aita gisa dagozkion pribilegioak betetzen ere. Ideia modernoek desegin baino ez zuten egiten, eta aristokraziak eskandalua elikatu baizik ez. Galtzeta asko pasaratu beharko zen, salbaziorik izatekotan. Gizonezkoen belaxkakeria medio, lotsagabe eta berritsu zebiltzan emeak zeharo, betebeharrei men egiteko, haurrei titia emateko eta eltzekariari aparra kentzeko jaiok zirela ahantzirik. Ni bertan nengoela-eta jaun agurgarri hark bere esanak gogortu besterik egiten ez zituela oharturik, arrazoia ematea deliberatu nuen, ez zedin gehiegi asalda.

Ez dakit bietan zerk harritzen ninduen gehien, senarraren jario oldarkor etengabearen neurrigabekeriak ala ezkontidearen irriño isil eta misterioitsuak. Arestian esan dut aurpegi politaren jabe zela emaztea, txikia, mehea, beltz-beltzak begiak, eta bazuen gainera haren gorputzak halako kera altzairatu eta txikia, bizitza luzerako promesa izan ohi dena, eta amonatxoak idor eta osasuntsu egiten dituen, mahaspasa azukretsuen pare. Haren

presentzia, begirada bat, nahikoa izaten ziren eskuarki senarraren hitzaldi iraingarri eta kartsu haiek errotik mozteko. Ez zuen halakorik xuxurlatzen ibili beharrik izaten:

—Ez zaitetz sutu, Nikolas; badakizu-eta medikuak hala agindu dizula...

Normalki, muturreko egoera horretara ailegatu aitzin, zutitu eta herrenka alde egin ohi zuen eriak, bere erdiaren besoa lagun, edo paseotxoia egitera joango zen bestela, platanondo hostotsu bikainen azpitik.

Ahantziak nituen arras senar-emazte haiek —bainuetxeko hamabostaldi batean desfilatzen diren zinema-figura atsegin nahiz higuigarri horiek ahanzten diren bezalatsu—, eta hara non honako hil-mezu hau irakurri nuen egunkari baten laugarren orrialdean: «Nicolás Abréu y Lallana jaun txit gorena, Administrazioko goi-buruzagia... Haren alargun atsekabetua, Clotilde Pedregales andere guztiz ohoretsua...». Handik bi egunetara, patuak hala nahirik, Aguasacraseko zuzendari medikuarekin egin nuen kalean topo, lan kontuak zirela-eta Madrilera etorria; gizon begi-ernea eta diskretua zen guztiz, eta beste hainbat hildakorekin batean, akorduan hartu genuen bisaia gaitzeko jaun zorrotza.

—A! Abréu jauna! Galtzen gizona! —erantzun zuen doktoreak, barrez.

—Galtzen gizona? —galdetu nion, jakinminez.

—Ez ote dakizu, bada? Harritzen nau, bainuetxeetan sekretu gutxi izaten baita, eta kontu hau, jakin ez ezik, ahorik aho ibili ere egin zen, alajaina... Hara! Zuk Abreutarrek baino egun batzuk lehenxeago egin zenuen alde, ordea, eta kontu guztia jakin arte jendeak barreari ekin ez... Nolanahi ere, zera galdetuko diozu zuk zeure buruari: nola izan lezake inork giltzapean gertaturikoen berri? Harrigarria da zinez; iratxoen lana dirudi...

Kasu berezi honetan, zerbitzariak usnatuko zuten bainuetxean gertaturikoa, ez baitira espioi makalak, edo aldameneko gelakoek bestela, trenkadan barrena entzunik edo... Tira, egunerokoak ere izaten ditu halako sorginkeriak. Kontuak kontu, ezkonberri garaikoak omen zituen aurrekariak Abréuk. Astazakil hutsa, lau haizeetara harro zabaltzen ibilia zen, nonbait, bere jarrera erne eta nortasun bereizgarri huraxe zela gainerako gizon guztiek imitatu beharrekoa, baldin eta familia-buruaren pribilegioei tinko eutsiko bazieten, behinik behin.

Eta begira, orain, Abréuren bizi-pasarte biak elkarren osagarri. Berrogeietara iritsi eta moralista zorrotz bihurtzen diren guztiak bezalaxe, gaztaro jostari zalapartatsua izan zuen berak ere.

Ajeek eta minek ohartarazi egin zuten, ordea, eta ezkontzea erabaki zuen orduan, etxe osasuntsuago batera aldatzea erabakitzen duenak bezala. Neska hura atzeman zuen, Clotildetxo; polita, ongi hezia eta eskugainik gabea, eta gustura asko utzi zuten gurasoek gaixo hura Abréuren eskutan, ordura arte lanpostu bikainetan ibilia baitzen mutila, giltza handien jabea izaki. Ezkondu egin ziren, eta zera entzun zuen emazte berriak biharamun goizean esnatutakoan, bere patuaren norabide aldaketaz harriturik, honenbestez ari zitzaiola senarra agintzen, larderiatsu bezain irribarretsu:

—Ene Clotilde..., jaiki zaitez.

Halaxe egin zuen neskatoak, zergatik ez zekiela; eta honela manatu zion senarrak, segidan, are aginpide handiagoz:

—Orain... Jantzi nire galtzak!

Harriturik, entzuten ari zena ezin sinetsirik, irriño bat egin zuen neskatoak, eztei-bidaiako txantxaren bat izango zelakoan..., broma bitxia, desegoki samarra...; baina, nork jakin? Modako zerbait, beharbada, ezkongaien artean?

—Entzun al didazu? —errepikatu zuen senarrak—. Jantzi nire galtzak! Aguro, neska!

Nahasirik, lotsaturik, eta negar egiteko gogo gehiagoz irrirako baino, ahal bezain zintzo egin zion men Clotildek. Obeditzea lege!

—Eseri zaitez orain hor —agindu zion berriz senarrak, tanpez handiros eta serio, besaulki bat seinalatzen zuela. Eta ordurako galtzak jantzirik zen neskatoak bere burua bertara jausten utzi zuelarik, senarrak esan zuen: Une berezi honetan galtzak jantzi zenitzan nahi izan dut, Clotilde maitea, argi gera dakizun ez dituzula sekula santan berriz jantziko. Niri dagozkit horiek, Jainkoa lagun, orduero eta egunero, gure ezkontzak iraun bitartean, eta urte askoan hala bedi, bake santuan beti ere, amen. Orain badakizu. Erantzten ahal dituzu.

Zer iritziko zion Clotildek ohartarazpen hari? Esan, behintzat, ez zion inori esan. Isiltasun guztizko eta hautsezin baten baitan gorde zuen, emakumearen ideal xumeak, zintzoak, gazteak, morrontzaren ez baizik maitasunaren galde egiten duen horrek berak jasandako hamaika eta bat porrot biltzen dituen isiltasun berberaren baitan... Otzan eta mutu bizi izan zen, halako moduan non puntu-lanak egiteko egungo fabrikek lineaia eta pasaratzeko arrautza

behin betiko baztertu izan ez balituzte, erromatar emagin haien gaineko esakune hura erantsiko baikenion: “etxea zaindu eta atergabe irun zuen haria”.

Baina kaltea aurrez egin zion Abréuk bere buruari, eta ezkon-bizitzan zehar fidel antzean jardunagatik ere, min kroniko moduan azaleratu zitzaizkion iraganeko bizimodu desegokiaren aztarnak, eta Aguasacrasen kontsulta egin zidan lehendabiziko aldi hartan ikusi nuen harenak konponbiderik ez zuela; eta gaitza arintzen saiatzea beste erremediorik ez zela, betiereko gaztetasunaren iturrian baizik sendatzen ez diren horietakoa baitzen harena... Batek jakin, ordea, non jariatzen den halakorik!

Zinez saiatzen zen emaztea senarra ongi zaintzen. Eta zaindu egiten zuen, guztiok dakigu hori. Eginahal guztiak egiten zituen senarraren alde, eta libertitu ordeztu —gaztea zen oraindik, azken batean—, sendagai eta edabeak baizik ez zituen gogoan izaten. Baina goizero, nagiak atera orduko, eta txorrotzio-hotsa bazirudien ere, xirula-ahots ezti batek agindu zorrotza ematen zion senarrari:

—Jantzi nire gonazpikoa, Nikolas maitea! Jantzi berehala nire gonazpikoa!

Hutsik egin gabe, desitxuratu egiten zen eriaaren aurpegia aldiro; ernegu isilak antzematen zitzaizkion ezpainetan..., eta txori-hotsez errepikatzen zen beti agindua, eta burua makurtzen zuen gizonak, parpailaz apainduriko gonaren xingolak gerritan trakets lotu ahala. Eta orduan, zera gehitzen zuen emazteak, are musika-hots finago batez:

—Ni, zure erizaintxoan nauzun bitartean, bizitza guztian zehar jantziko dituzula jakin dezazun, bai?

Eta luze egongo zen Abréu emakumezkoen azpiko arropa jantzirik, hortz artetik biraoka, amorruak jotzen edo erreumak estuegi hartzen zuelako, auskalo, Clotildek, logelan gora eta behera, sendatze saio artatsu bezain mintsuei, igurtzi mesedegarriei eta badaezpadako flanelatzeei begira beharrezko ziren guztiak prestatu bitartean.